



## LABek “egin klik: erlijiOFF” dinamika abiatuko du

### Aurrekariak eta kontestua



Hezkuntza sistema propioaren bidean, ikastetxe laikoak IRUTEN hasiko gara, hezkuntza laikoaren aldeko apustua eginez.

1. Erlijio desberdinetako ikasgaia (nagusiki katolikoa) urtez urte eskaintzen da Euskal Herriko ikastetxe publiko zein itundutako gehiengo zabalean. **LABek Hezkuntza laikoaren aldeko apustu garbia egiten du**, familiek etxean eta euren borondatez erlijioetan hezitzeko aukera dutelarik, baina heziketa hori ikastetxeetatik at egon beharra duela ulertuz. Legeak, hezkuntza laikoa izango dela argi adierazten du gainera, eta gaur egungo **elementu segregatzaile nagusienetakoa** da. Iruten filosofiari jarraiki, **hezkuntza sistema propiora bidean urrats praktiko eta kualitatibo bat gehiago eman nahi dugu, ikastetxe laikoak iruten** hasiko gara.

2. Jakina da **erlijio irakasleek** EAEko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan duten **sarbide iluna**. Alde batetik, **Apezpikutzak kudeatutako zerrenda** edo lan poltsa batetik ematen dute **jauzia irakaskuntzara**. Gerora, merituak pilatzen dituzte gainontzeko irakasleekiko baldintza desberdinetan eta **aukera dute gainontzeko espezialitateetara igarotzeko**. Betebehar, funtzio eta lan baldintza desberdinak dituzte baina eskubide berdintsuekin. Gainera, ez dute ikastetxeko jardun eta proiektu desberdinetan parte hartzeko beharrik. Hau gutxi balitz, irakasle hauetariko **askok** ez dute inondik inora euren **asteko jarduna betetzen, jardun osoan kontratatuta egonda horrela kobratzen dutelarik** ere, **irakasle arteko arrakalan ikaragarri sakonduz eta lan karga askoz baxuagoak izanez**. Irakasle hauek **pribiligiatu hutsak** dira **Eusko Jaurlaritzaren babes, baimen eta bedeinkapenarekin**.

**Honakoak dira esku artean ditugun datu hotzak:**

**-Haur eta Lehen Hezkuntzan**, jardunaldi osoko kontratuarekin, Erlijio katolikoko 10 eskola ordura ez dira iristen batz bestea: Jardunaldi osoa ez du inork betetzen. Jardunaldi ia osoa edo jardunaren 2/3 irakasleen %10 inguruk betetzen du. Irakasleen %80aren bueltan, jardun ½ eta 1/3 bitartean lan egiten du, eta gainontzeko %10ak ez du jardun 1/3 betetzen.

**-Bigarren hezkuntzan**, jardunaldi osoko kontratuarekin, Erlijio katolikoko 10 eskola ordu dituzte batz bestea: Jardunaldi osoa irakasleen %10aren inguruk betetzen du. Jardunaldi ia osoa, baina berau bete gabe, irakasleen %20 inguru dabil. 2/3eko jarduna betetzen %15aren bueltan eta jardun ½ eta 1/3 bitartean irakasleen %40 kokatzen da. Gainontzeko %15ak ez du jardun 1/3 ere ez betetzen.





LABek  
“egin klik:  
erlijioFF”  
dinamika martxan  
jartzea erabaki  
du.

Dinamika  
honekin, **erlijio**  
**ikasgaia**  
**ikastetxeetatik**  
**ateratzeko**  
**planteamendua**  
**aurkezten dugu.**



> irakaskuntza

[www.iruten.eus](http://www.iruten.eus)  
[@labirakaskuntza](https://twitter.com/labirakaskuntza)

3. Joan den Martxoan, **ELA sindikatuak** (CCOO, UGT eta LSB-USO sindikatuen atxikimenduekin) irakasle hauen **lanpostuak blindatzeko** legez besteko **proposamen** bati atxikimendua emateko eskaera egin zigun. Irakasle hauen lanpostuak ez suntsitzea eta betirako bermatzea jasotzen zen dokumentuan. Hezkuntza batzordeko mahaira eraman zuten gaia EAJ, PSE eta PPren babesarekin. **Ezezko borobila eman zion LAB sindikatuak** eta gogor salatzen dugu proposamenaren bokazio desberdintzailea eta sindikatu sinatzaileen jarrera lotsagarri eta korporatibista.

4. LABek, erlijio ikasgaia ikastetxeetatik atera eta **irakasle hauek birkolokatzeko prozedura adostu** baten aldeko hautua egiten du, dagozkion **berme mekanismoak artikulatuz** eta **gardentasun printzipioak bermatuz**. Beste irakasleak bezala, **lan poltsa publikoen** bidez eta **egonkortasun prozesuen** bidez eskuratu beharko dute lanpostua, lan baldintza, eskubide eta betebeharrak berdinekin.

## DINAMIKA

- Abenduan, aurkezpena
- Abendua-Ekaina: sinadura bilketa masiboa jendartean eta lan zentroetan
- Azaroa eta abenduan: hezkuntza eragileekin alde bikoak
- Legebiltzarreko hezkuntza batzordean agerraldi eskaera
- Erlijio mahai negoziatzaileetara joaten hasiko gara. Gure salaketa behin eta berriro mahaigaineratzeko bertan parte-hartzea berreskuratuko dugu. Gure dinamika atxikipena eta sinadura eskatuko diogu patronalari. Era berean, kontzentrazioak burutuko ditugu mahai negoziatzaileak deitzen dituzten bakoitzean.
- Hilabete bakoitzeko 15ean (aurreko ostiralean asteburua bada), kontzentrazioak deitzen ditugu ikastetxeetako sarreratan, **“egin klik: erlijioFF”** lelopean. Pankartak eta plakak jartzeko deialdia. Ekimen propioak aurrera ateratzera animatzen zaituztegu! Ikasturtean zehar dinamika desberdinak eramango ditugu aurrera hilabete bakoitzeko 15ean sindikatuko liberatuen partetik, eta horien berri periodikoki emango dugu.
- Apirilean akanpada laikoa Eusko Jaurlaritzaren aurrean.
- Maiatzan pankartada masiboak herri eta lan zentroetan. Leloak: “Hezkuntza laikoa iruten, erlijiorik ez”, “egin klik: erlijioFF”, “erlijiorik gabeko hezkuntza burujabea iruten”.
- Maiatzak 11, manifestazioa Bilbon, **“Hezkuntza burujabea iruten, egin klik: erlijioFF”** lelopean.
- Ekaina amaieran: Sinaduren entrega Cristina Uriarteri. Dinamikaren ikasturte itxierako ekimena.

*Gaia bideratzen ez bada, hurrengo irailetik aurrera mobilizazioetan sakonduko dugu, langile eta herritarren erantzun eta ekarpenak aintzat hartuz eta koherentziarekin jokatzuz.*